

HERENSUGE

Ahuxki mendian, badira belardi berde eta ezin-
goxoagoak. Ardi eta behientzat, zer bazka lekua !
Iturri bat ere bada, gau eta egun kantari. Handik
beheraxago leize bat. Leize ilun eta beldurgarria,
artzainek maite ez dutena : Azalegi, mendiaren
sabelean barna sartzen dena.

Hor bizi da Herensuge lazgarria, zazpi buruduna.
Goizero, Herensuge ateratzen da bere gordelekutik.
Abereengana joan eta, bere hats ikaragarriarekin
- hurrup eta klik ! - irensten ditu behi bat eta
bizpahiru ardi. Gero erre kara joan ohi da,
zurga-zurga ur freskoaren edatera, eguzkitan
etzan aurretik.

Artzainak, kezkatuak, biltzen dira egun batez :
- Aski da ! dio artzain zahar batek. Baditut jadanik
hiru ardi galduak. Behar dugu nolazbait Herensuge
garbitu.
- Egia, dio artzain gazte batek. Goiz honetan, behi
bat jan dit. Hil behar dugu !
Baina, nola ?
- Utz ene gain, nik badakit zer egin ! Artzain gaztea
honela mintzatzen da.



Arratsean, ardiak sartu eta, artzain gaztea sabaira joaten da.
Han behi larri bat hartzen du, bolboraz eta su-piztekoez (poxpoluz)
bete ondoren, josten du.

Egunsentian, artzaina Azalegiko leizeruntz joaten da.
Zorionez, Herensuge ez da leizean. Orduan,
artzainak behi faltsua
leize sarretan ezartzen du eta joaten da, arroka baten atzean gordetzera.
Herensuge heldu da, danba-danba, pantza ase, ur fresko trago bat eginik.
Zer loaldia egin behar duen leize xokoan !

Artzaina, hats bahitua,
atxikizabarik dago arroka baten atzean.
Bere bizian sekula
ez du ikusi horrelako mamu izugarriarik !
Gorputz osoa ezkata berde
eta horiz estalia du, zazpi buruak
luraren zazpi hegaletara so daudelarik.
Ikusiko banindu ? Artzaina ikara bizian dago.

Lasai, artzaina !
Herensuge hortxe dago, zazpi buruak, hamalau begiak
zabal idekirik, ikusten duena ezin sinetsiz.
Hortxe, bere zai balego bezala, zer ote ? Behi eder bat.
Zazpi mihi ari dira jadanik, murtxa murtxa, gozatzen.
Jauzi ikaragarri bat eta... hurrup eta klik !
Herensugek behi-ordea
irensten du.





Ikustekoa zen Herensuge ! Jauzi honat, jauzi harat, begiak sutan, sudurretik kea dariola. Artzainak, balditurik (kuzkurturik), ikusten du Herensuge, oinazeak bihurtikatu, kea zazpi ahoetatik dariola, hortzak karraskan, ausiki egiteko zorroztuak. Artzainak hilarena egiten du. Herensuge ohartzen bazaio, bere kalterako ! Baina ez, orro latz batean, Herensuge airean zapartatzen da, sute ikaragarria sortuz, Arballako zuhaitz puntak erre belztuak uzten dituela. Herensuge ez da gehiago subola biribil bat baizik, itsasoan pulunpatzen (murgiltzen) delarik. Adio Herensuge ! Betirako lotan zaude orain.

Geroztik, artzainak lasai daude mendian. Neguan, supazter xokoan, Ahuxkitik Herensuge, aiton-amonek, beren ilobatzoei, erranen diete nola, egun batez, artzain batek garaitu zuen Herensuge izugarria. Eguzkia itsasoan etzatera doanean, so egiozu zeruan hedatua den hodei gorriari. Herensuge ote da, oraindik ostikoka ari, itsaso barnetik ?

